

**II. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA****Basauriko Udala**

Administrazio Bereziko Eskalako, zerbitzu berezien azpieskalako, Lanbide Motetako, AP Taldeko (Hilerriko Peoia) lanpostu bat txanda irekiz betetzeko hautaketa-prozesuko deialdian praktiketako funtzionario izendatzea, nahi-taezko 1. hizkuntza-eskakizuna.

Alkateak, azaroaren 25eko 5108/2025 Alkatezaren Dekretuaren bidez, honako hau xedatu du:

Lehenengoa: Jon Dudagoitia Uriguen jauna praktiketako funtzionario izendatzea, txanda irekiaren bidez Administrazio Bereziko Eskalako, Zerbitzu Berezien Azpieskalako, Lanbide Klaseko, AP Taldeko (Hilerriko Peoia) lanpostu bat (1) Oposizio sistemaren bidez betetzeko hautaketa-prozesuaren deialdian, Basauriko Udalaren 2022ko lan-eskaintza publikoari dagokiona.

Bigarrena: Izendapen honek 2025eko abenduaren 1etik aurrera izango du eragina, egun horretan hasiko baita praktikaldia, eta sei hilabeteko iraupena izango du, deialdiaren oinarri orokorren 11. puntuan ezarritakoaren arabera. Plazaren atxikipena behin-behinekoa izango da, praktikaldia amaitu arte.

Hirugarrena: Praktikaldiaren ebaluazioa behin-behinean atxikita dagoen Arloko arduradunei dagokie. Praktikaldia amaitu eta, hala badagokio, gainditu ondoren, karrerako funtzionario izendatuko da.

Laugarrena: Ebazpen hau interesdunari jakinaraztea, legez dagozkion errekurtsoak jarrita, eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, webgunean eta iragarki-oholean argitaratzea, oinarri arautzaileekin bat etorriz.

Basaurin, 2025eko azaroaren 27an.—Alkatea, Asier Irigorri Basaguren